

BALIO PROPOSAMENA

Taldea: Ibai Aguado, Hamuda, Markel eta Unai Torres

2.EM2D



ENERBIDEA

Gure proiektua autoak pasatzen diren errepide baten bidez energia sortzean oinarritzen da. Errepidean plaka berezi batzuk jarriko ditugu, eta autoak plakak zapaltzen dituztenean, sortzen den presioa energiara bihurtuko da. Energia hori baterietan gordeko da, gero hiriak, etxeak edo argiteria publikoak argitzeko erabiltzeko.

Proiektu hau oso onuragarria da, energia garbia eta jasagarria delako. Haize-errotak edo eguzki-plakak bezala, gure proiektua ere energia berriztagarria da, baina abantaila handi batekin: haizea ez da egunero egoten, eta eguzkia ez dago 24 orduz. Baina autoak egunero pasatzen dira errepidetatik, eta horregatik energia etengabe sortu daiteke, eguraldiak ez duelako eraginik. Horregatik euria egon harren, energia generatzen jarraitzen du. Plakak material berezi batekin eginda daude eta horregatik ez dira apurtzen buztitzen badira.

Gure proiektua beste proiektu batzuetan oinarrituta dago, baina gurea onura gehiago ditu. Adibidez; gure plakak ahalmena dute euriko putxuak xurgatzeko. Horregatik, errepideak ez dira entxarkatuko euri asko egon arren.

Badakigu energia nuklearrak energia asko sortzen duela, baina kutsadura handia eragiten du eta hondakin arriskutsuak sortzen ditu. Gure sistemak, ordea, ez du kutsatzen eta ez du kalterik egiten ingurumenean. Horregatik, gure proiektua planeta zaintzeko eta energia garbia erabiltzeko bide ona da. Gaur egungo teknologian oinarritu gara hala nola beste herrialdeetan [martxan dagoena](#)

Gainera, gure proiektua bat dator [2030 Agendarekin](#), jasagarritasuna eta ingurumenaren babesa sustatzen dituen planarekin. Guk teknologia eta naturaren arteko oreka bilatzen dugu, etorkizun hobe baten alde.

Laburbilduz, gure energia sortzen duen errepidea etorkizunerako urrats garrantzitsua da: baliabideak modu adimentsuan erabiltzen ditugu, ingurua zaindu eta energia garbia sortzen dugu denon onerako.



LOGOTIPOAREN ESANAHIA:

ENERBIDE logoak gure proiektua ondo adierazten du. Autoaren irudiak errepidetatik pasatzen diren ibilgailuak irudikatzen ditu, haiek baitira energia sortzen dutenak.

“ENERBIDE” izenak energia eta bidea lotzen ditu, gure ideia nagusia azalduz: errepidea energia-iturri bihurtzea.

Koloreek indarra, mugimendua eta teknologia adierazten dute.